

Jornada Extremeñoak, Korrika eta Alberto Iñurrategi mendizalea, apirileko kultur ekitaldietan

■ Extemadurako jaiak eta Korrika datorren asteburuan izango dira ■ Alberto Iñurrategi apirilaren 28an etorriko da Hernanira eta 'Hire Himalaya' ikusentzutekoa emango du.

APIRILEKO kultur aktibitateetan Jordana Extremeñoak *Korrika* eta Alberto Iñurrategi izango dira protagonista nagusiak. Extemadurako jaiak aurten 11garrena izango da eta urtero arrakasta handia izaten du. Kantu eta dantzaz gain, bertako produktu eta artisauek erakusketak girotzen dute eguna. Ekitaldia larunbatean eta igandean izango da.

AEK-k kultur aktibitate asko antolatu ditu *Korrika* kulturalaren barruan, eta igande goizaldean iritsiko da *Korrika* Hernanira. Aurretik, ordea, ostiralean *Korrika* Gaztea eta *Korrika Txikia* egingo dira. *Korrika* Gaztea aurten egingo da aurreneko aldiz, eta 14-16 urte ingurukoei begira antolatu da. Eguerdiko 12:00etan izango da hori. Gero, 15:00etan, *Korrika Txikia* egingo da.

Korrika iristen denerako ere AEKk antolatu ditu eki-



Extemadurako jaiak jende asko biltzen du Latsunbeko futbol kanpoan.

taldia. Larunbatean, herri afaria egingo da Tilosetan, soziedadeek jarrita, eta gero *Mal de Ojo* taldeak kontzertua emango du.

Himalaya Hernanira

Alberto Iñurrategi mendizalea haundia apirilaren 28an eto-

rriko da Hernanira. 14 *zortzimilakoak* igo dituen atxabatarrak Himalayako errealtatea ekarriko du Hernanira 'Hire Himalaya' diaporamarekin. Emanaldia, 20:00etan izango da Biterin.

Ekitaldi horiez gain, badira beste batzuk ere. Ostegun

honetan, Aldaba taldeak kontzertua emango du Biterin 19:30etan, eta zineklubaren barruan, *El hombre sin pasado* filma botako dute, 22:00etan. Haur eta helduentzako antzerkia dago apirilaren 5-ean eta 24an, eta Bandak 11-ean kontzertua emango du. □

JARDUNALDIAK DROGA-MENPEKOTASUNAREN PREBENTZIOARI BURUZ



Eliza Ebanjelikoa pozik dago jardunaldiek izan zuten asistentziarekin.

Herriko problematika eztabaida

Droga-menpekotasunaren prebentzioari buruzko jardunaldiak egin dira Eliza Ebanjelikoa antolatuta. Joxan Rodriguezek Kronikari adierazi dionez, oso jardunaldi aberatsak izan dira, bai hizlarien aldetik eta baita jendearen parte hartze aldetik ere. Bere ustez, interes puntu nagusietako bat izan da, eztabaida herrira ekarri izana. Beti urrutiko arazo bezala hartu beharrean, etxera begira jartzea.

Zentzu horretan, gurasoen lana eta heziketa azpimarratu ziren prebentzio elementu nagusi gisa, eta Udalak zer egiten duen edo egin beharko lukeen ere planteatu zen. Bestalde, aipatu zen Hernanin interes ekonomiko haundiak daude droga kontsideratu litezkeen produktuen inguruan. Horrekin lotuta, zenbait tabernen kontra judizialki jotzeko aukera ere planteatu zen 18 urtez azpikoei alkohola saltzeagatik.

Jardunaldian esanenez, prebentzioaren inguruan herrian kontseilu bat sortzeko bidean dago eta interesa duenak izango du aukera parte hartzeko. □

Udalbiltzak Herrien Eskubideen Karta aurkeztuko du

LOREN ARKOTXA buru duen Udalbiltzak Herrien Eskubideen Karta aurkeztu zuen abenduan Kursaalaren egindako ekitaldian. Orain Herrien Eskubideen Karta hori herriz herri aurkezten ari da Udalbiltza eta asteazkenean Hernanin azalduko du. Ekitaldia irekia da eta Mertxe Etxeberria Alkateak eta Udalbiltzako ordezkari batek hartuko dute parte. Arratsaldeko 19:30etan izango da, Udaletxeko Areto nagusian. Hernaniko Udala Udalbiltzako kide da, eta herritarrei Eskubideen Kartaren aurkezperara joateko deia egin die.

Odola ematea bihar

BIHAR hileko aurreneko asteartea da eta beraz Hernanin odola emateko eguna da. Extrakzioak ambulatorioan egingo dira arratsaldeko 18:30etatik 20:30etara.

Bestalde, Gipuzkoako Odol Emaila Elkarteak urtero ekitaldi bat egiten du eskualdeka. Ekitaldi horretan, odol emaileri eskerrak emateaz gain, eta 25 eta 50 donazio egin dituztenei eskerroneko omenaldi sinboliko bat egiten zaie. Eskualdeko ekitaldi hori aurten Hernanin izango eta apirilaren 27an egingo da.

Aldaba taldearen kontzertua ostegunean

ALDABA musika taldeak kontzertua emango du Biterin, Musika Eskolara antolatuta. Aldaba taldeak musika errenazentista, barrokoa eta abar egiten du kontzertua, Biterin, 19:30etan. □

JUBILATU ETXEA

Galiziara bidaia

JUBILATU Etxeak Galiziara bidaia antolatu du maiatzaren 23tik ekainaren 3ra, eta izen ematea zabalik dago. Prezioa, 375 euro da, ez 350 atzo azaldu bezala. □

www.kronika.net

kronika Interneten helbide berrian

JANTZI DENDA
AMBOTO

Nagusia 54 - HERNANI - Tel.: 943 55 23 40

AMBOTO
Udaberriko erro-
pak zure naurria
jartzen ditugu.
Hemen gaituzi.

brintza

BRINTZA, S.L.

Juan de Urbieto 15
Tel. 943 33 12 67
Faxa.: 943 33 08 92
20.120 HERNANI

LAN AHOLKULARITZA
AHOLKULARITZA FISKALA
ASEGURUAK, INBERTSIOAK

CATALANA OCCIDENTE



Aseguruak

Bautista Biurarena
Etxegoien

Kardaberaz 40 - Behea
Tel. 943 33 24 40
Faxa 943 556602
Mobila 610 29 27 01
20120 HERNANI



LAN AHOLKULARITZA

FISKALA

KONTABLEA



Atzieta 51 Behea - 20.120 HERNANI
Tel.: 943 55 02 54 - Faxa: 943 33 58 01

HERNANI kronika

Argitaratzailea: Dobera Euskara Elkartea. Erredakzioa, argazkiak eta publizitatea: *Hernani Komunikazioak*: J.M.Iraza U. Agirre, E. Agirre eta A. Zerain. Egoitza: Larramendi 11. ☎: 943-330899. Faxa: 943-336306. Eposta: *kronika@topagunea.com*. Lege gordailua: SS-679/2000. ISSN 1576-8422.

■ FUTBOLA

Mutilek 4-0 galdu, eta neskek 1-0

HERNANIKO goiko bi taldeentzat asteburu txarra izan da. Gorengo taldeak 4-0 galdu zuen Bergararen kontra, eta partidua joan eta partidua etorri, arnasik ez da iristen Zubipeko taldearentzat. Hurrengo astean ere Hernanik etxetik kanpora jokatu beharko du, Berioeren kontra.

Nesken taldea Gipuzkoako kopa jokatzeko ari da eta larunbatean 1-0 galdu zuen Luberriren kontra. Partidua oso berdina joan zen, baina, kórner batean donostiarrak aurreratu egin ziren. Larunbatekoaz gain, Hernanik 2 partiduko jokatu ditu kopan. Bat irabazi egin du eta bestea enpatatu. □

■ TIROA - GIPUZKOAKO KOPA

Zerain txapelkun, 100 platotik 98 jota

LUIS Mari Zerainek Gipuzkoako txapela atera du tiroan. Txapelketa Irunen jokatu zen eta espezialista haundiak hartu zituen mendean hernaniarrak, 100 platotik 98 jota. Jean Devan Europako txapelkunak hirugarren egin zuen eta Iñaki Unanuek bigarren. Zerainek 2000garren urtean ere irabazi zuen txapelketa hori eta orain berriz erakutsi du sekulako nibelean dagoela. 100tik 98 haizea zebilela bota zituen gainera.

Bestalde, Tiro Federazioak gazteek ikasteko kurtsoa antolatu du Irunen. Interesatuak deitu 629-434785. □


Aralar tabernako mus txapelketa gaur hasiko da, eta bihar Txantxangorriko finala jokatu da

■ Txantxangorriko sari banaketa atzeratu egin da apirilaren 11era.

ARALAR tabernako mus txapelketa gaur hasiko da eta aste honetan 21 partida jokatu dira. Denera 80 pareja inguru apuntatu dira. Hemen aste honetan jokatu dira partidak: gaur, Niko-Paste/Angel-Ekaintz; Joxe-Axier/Felix-Jexux; Martin-Iñaki/Kolombo-Txema; Montoia-Migel- Joseba-Iñaxio; eta, Teo-Manolo/Alber-Pedro.

Asteartean, Garmendia-Garmendia/Pako-Pantxo; Vixente-Fernando/Intxaurrondo-Intxaurrondo; Txema-Manolo/Olano-Txema; eta, Julio-Mantxa/Trinkete-Trinkete.

Asteazkenean, Koldo-Koldo/Txato-Tito; Josetxo-Pablo/Dani-Antonio; Ramon-Esteban/Karlos-Jabi; Kano-Aitor/Juan-Diez; Gainza-Perren/Ramon-



Goñi-Bilbao (erdian) da finala jokatu duen bikote bat.

Gabi; eta, Antxon-Joxe-Luis/Egaña-Txiribi.

Osteguneko partidak asteazkenean aterako ditu Kronikak.

Txantxangorriko finala
Asteartean Txantxangorriko

mus txapelketako finalak jokatu dira. Banakakoan, Luis Garayar eta Jose Mari Ormazabal arituko dira. Binakakoan, Karlos-Jabi eta Goñi-Bilbaok jokatu dute txapela. Sari banaketa afaria apirilaren 11ean egingo da. □

📝 JASOTA BEZALA

Kiroldegiko frontoira entrenatzera joan eta

Oso triste, edo hobeto esan behar badegu, haserre gaude kiroldegiko arduradunekin, fundamentu gutxi, arduragabekeria... Ez dakigu nola eta zergatik jokatzeko duten horrela. Larunbatean entrenatzeko sekulako gogoz azaldu frontoira, eta zer gertatu ote eta frontoia okupatuta. Ez da lehenengo aldia. Larunbatean "Kutxaren babesean" Gipuzkoako umeentzako pelota saioa zegoen, aurrekoan Sagarrondotik, aurreagokoa paila-

soak... Gure herria bizirik dago eta harro gaude horretaz. Gure kexua zera da, "ez digutela aldeztu aurretik abixatzen, egun berean ente-ratzen gera ezin dugula entrenatu". Neska izanagatik (horregatik izango ote?) arazo pila edukitzen dugu kirola egiteko. Horrela nola emango dugu aurrera zerbait? Horrenbeste kostatzen al da telefono dei bat egitea? Ez dugu gehiago es-katzen, lehenago abixatzea besterik ez. Aurreko urtetan badakigu okerrago izaten zela, ekitaldi gehiago izan baitzen.

Zerbait lortzeko entrenatu egin behar dugu eta baldintza egokitan (argiak ere askotan piztutzea ahaztu egiten zaie).

Zapuztuta sentitzen gara, dena pikutara botatzeko gogo ematen digu. Beste kirol batean saiatu beharko ...

Leire Lucas, Leire Aiape, Miren Zubillaga, Garazi Jauregi, Ane Lujanbio, Ane Gerra, Mirari Pagola, Irati Ugalde, Mainer Semper, Mainer Huizi, Itziar Arruarte, Ixiar Lujanbio, Aitziber Burutaran, Garbiñe Tijero (nesken arduraduna) □

■ HITZ BITAN



Hernaniko txirrindulari gazteak, Ibarluzen proba hasi aurretik.

✓ TXIRRINDULARITZA

Ibarluzen proba, JOCC-k antolatuta. Txirrindulari gaztetxoek proba izan zuten larunbatean Hernanin. Ibarluzen egin zen karrera, JOCC Txirrindulari Elkartek antolatuta, eta Kaikuko txirrindulari gazteek erakutsi zituzten beren abileziak.

✓ BILDU HERNANI

Batzarra asteartean. Bildu Hernani plataformak batzarra egingo du asteartean eta hiru puntu nagusi tratatuko dira: firma bilketa plataformak hauteskundeetan ateratzeko eskubidea izatearen alde, hauteskundeetako programa eta hauteskunde zereendak. Batzarra, Biterin da, arratsaldeko 20:00etan. □

✓ PELOTA

Gipuzkoako txapelkun trinketean. Kadete eta jubenetan Hernaniarrak Gipuzkoako aurren-bigarren gelditu dira trinketean. Kadeteetan, Paul Ojuelek 30-9 irabazi zion Jon Apaolazari finalean. Jubenetan, Suarri Irazustabarrenak 35-25 irabazi zion Mikel Arrietari. Helduetan, Alvarez-Sarasuak 40-19 galdu zuten Bearzana bilabonarren kontra.

Herriko Lauterdiko txapelketa martxan. Asteburu honetan hasi da Herriko Lauterdiko txapelketa eta herriko pelotari gehienak hor izango dira. □

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK	✚ FARMAZIAK	
	ASTELEHENA	ASTEARTEA
▶ Taxiak: 943 550093	▶ Egunez: Chucla Kardaberaz 48	▶ Egunez: Correa Perkaiztegi 8 ☎ 943 551933
▶ Udaltzaingoa: 943 333288	☎ 943 551793	
▶ DYA: 943 464622	▶ Gauzez: Chucla Kardaberaz 48	▶ Gauzez: Correa Perkaiztegi 8 ☎ 943 551933
▶ Anbulatorioa: 943 006666	☎ 943 551793	
▶ Jokalari anonimoak 943 331103		

IRAGARKI MERKEAK

Neska bat behar dugu umeak zaintzeko, 8:00etatik 17:00etara. Deitu: **943 55 37 66 (Arratsaldeko 20:00etatik aurrera)**

LAGUNTZAILEA, agentea edo Justizi-offiziala. Laster deialdiak. Euskal Herriko Auzitegiaren lana. ADOZek informatzen du: **943 44 45 09**

AIREPORTUAN KONTROLATZAILEAK. AENAREN deialdiak udaletan. Eskakizuna: Diplomatu edo lizentziatua. Erdi mailako ingelera. ADOZek informatzen du: **943 44 45 09**

GIDA-ESKOLA IRAKASLEA. Langabeziarik gabeko lanbide baten lana. Diru-sarrera oparoak. Presta zaitetz. ADOZek informatzen du: **943 44 45 09**

BASOZAINA. Euskal Herriko parke eta Natur Babesguneetan lan egiteko. Eskakizuna: Eskola Graduatua. Presta zaitetz. ADOZek informatzen du: **943 44 45 09**

SUHILTZAILEAK. Euskal Herriko parkeetan egin ezazu lan. Lan-baldintza ezin hobekak. Betebeharra: Eskola Graduatua. ADOZek informatzen du: **943 44 45 09**

GARRAIOLARIA. Garraiolari profesional izateko gaitze-titulua lor ezazu ADOZek informatzen du: **943 44 45 09**

ADMINISTRARI laguntzaileak. Laster deialdiak zenbait udaletan. Eskakizuna: Eskola Graduatua. ADOZek informatzen du: **943 44 45 09**

UDALTZAINA bertako udaletan lan egiteko. Deialdiak laster. eskakizuna: Eskola Graduatua. Presta zaitetz ADOZ **943 44 45 09**

LIBURUTEGI laguntzailea zenbait udaletan. Laster deialdiak. ADOZek informatzen du: **943 44 45 09**

ADMINISTRARIAK (teknikoak zein laguntzaileak). Bertako udaletan deialdiak zabalik. ADOZek informatzen du: **943 44 45 09**

GIDARIAK, elektrikariak, kontserjeak, langileak... Bertako udaletan subalterno bezala lan egiteko. ADOZek informatzen du: **943 44 45 09**

KIROLA ASTEBURUKO EMAITZAK

FUTBOLA	Taldeak	Non	Noiz	PELOTA	Taldeak	Non	Emaitza
Boren.	Bergara-Hernani	Agorrosin	4-0	Trinketea Gipuzkoako txapelketa			
Emak. Li	Luberri-Hernani	Berio	1-0	Kadeteak	Paul Ojuel-Jon Apaolaza	Irura	30-9
RUGBIA				Jubenila	Suarri Irazustabarrena-Mikel Arrieta	Irura	35-25
Kad. Eus.	Hernani-Zarautz	Landare	73-0	Seniorrak	Alvarez-Sarasua-Bearzana	Irura	40-19
seniorrak	Hernani-Atletiko	Landare	43-3	Udaberri txapelketa			
PELOTA	Taldeak	Non	Emaitza	Pal. goma	Burutaran-Arizabalaga/Altzatarrak	Kiroldegia	8-30
Laurterdiko txapelketa				Pal. goma	Tijero-Lujanbio/Altzatarrak	Kiroldegia	12-30
Zeiza-Artola		Kiroldegia	22-2				
Apaolaza-Arrieta II		Kiroldegia	22-12				